



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

TXAKOLINAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“Txakolin” deitura, euskal jatorrizko hitza da. Gune geografiko honetan aspaldiko denboretatik hona produzitzen den ardo mota identifikatzeko erabili izan da.

“ Txakolin” izeneko ardo hau Euskal Herriarekin lotuta dago, bere historiarekin eta herri gisa dituen sustraiekin, eta termino hori ezin du beste gune geografiko batek beretzat hartu. Ohiko kontsumitzaileak “Txakolin” izena Euskal Herriarekin identifikatzen du, eta izen horrekin merkaturatzen den ardoa gune geografiko horrekin lotzen da, eta horrela identifikatzen da.

Azken aldi honetan lan eta ahalegin handiak egin ostean, txakolinaren sektorea elementu pizgarria da nekazal ustiategietarako eta nekazariarentzat, eta toki gainerakorrean dago Bizkaiko Herrialde Historikoko, eta oro har Euskadiko nekazaritzan.

Txakolina euskal nortasunaren ikurretako bat da, mahastien landaketak gure oraingo muga administratiboak gainditu dituen arren; eta, antzinatean moduan, gaur egunean ere txakolin mahastiak ikus daitezke ondoko erkidegoekin mugakide ditugun lurraldeetan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Gaurko errealitatea da hiru jatorri deitura daudela, hirurak Euskadikoak, eta bakoitzak bere araudietan definitutako lurralde esparruarekin. Araudi hauek Eusko Jaurlaritzak Gobernu Zentralak eta Europar Batasunak onartu dituzte, une edo urte ezberdinetan. Hiru Jatorri Deitura hauek beren arauak ezarri dituzte beren produktua arautzeko eta merkataritza babesteko, bertako ardoaren kalitatea eta ospe ona, eta txakolina egiteko erabiltzen den mahatsa landatzeko inguru naturalaren berezitasunak zaintzeko eta bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, eta mahasti eta ardo merkatuaren oraingo egoera ikusita, eta gure produktu tradizionalak babesteko eta sustatzeko dugun beharra eta derrigorra kontuan hartuta, zera adierazten dugu:

- 1- Bizkaiko Batzar Nagusiek Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina hiru jatorri deiturak babesten dituztela.
- 2- Bizkaiko Batzar Nagusiek Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina Jatorri Deituretako Kontseilu Arautzaileak babesten dituzte Euskadiko produkzio tradizionalak zaintzeko, ezagutzera emateko eta errentagarri egiteko egiten duten ahaleginean.
- 3- Bizkaiko Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen diote, Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina eta Getariako Txakolina hiru jatorri deituren aldarri historikoan oinarrituta, europar erakundeen aurrean behar besteko gestioak egin ditzatela “Txakoli-Chacolí-Txakolin-Chacolin-Txakolina” termino guztiak babesteko, hiru jatorri deitura hauek dagokien herrialde esparruko erabilera eskusiborako bermatzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

- 4- Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete txakolinaren sektorearen aldeko apustua egiten jarrai dezatela, ardo hauek eta produzitzen dituzten ardotegiak azoka,merkatu eta erakusketetan egotea bermatuz eta sustatuz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE EL TXAKOLI

El término “txakoli” es una palabra de origen vasco, que se deriva de la palabra “txakolina” identificada con un vino producido en esa zona geográfica desde hace muchos siglos.

El vino “txakoli” está vinculado al País Vasco, a su historia y a su cultura desde tiempos inmemorables. El consumidor medio identifica el término “txakoli” con el País Vasco y del mismo modo, el vino que se comercializa con ese término es identificado por ese consumidor medio con nuestra zona geográfica.

Tras mucho esfuerzo, de un tiempo a esta parte, el sector del txakoli está suponiendo un incentivo para las explotaciones agrarias y los agricultores, situándose en una posición emergente dentro del Agro en el Territorio Histórico de Bizkaia y en el País Vasco en general.

El txakoli supone una seña de identidad vasca, si bien, su plantación ha traspasado nuestras actuales fronteras administrativas y tanto en la antigüedad como actualmente pueden verse plantaciones en otras zonas próximas de comunidades vecinas.

La realidad actual es que existen tres Denominaciones de Origen, las tres en el País Vasco, cada una con su ámbito territorial definido en sus propios reglamentos. Unos reglamentos que han sido aprobados por el Gobierno Vasco, aprobados por el Gobierno Central y aprobados por la Unión Europea, en momentos o años diferentes. Estas tres Denominaciones de Origen han establecido normas para regular el producto con el fin de proteger un fondo de comercio elaborado al amparo de dichas normas con el objetivo de preservar la calidad y el prestigio del vino autóctono y las singulares características del medio natural donde se cultiva la vid que origina el txakoli.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Por todo esto y ante la situación actual del mercado vitivinícola y teniendo la necesidad y obligación de proteger y fomentar nuestros productos tradicionales, declaramos:

1. Que las JJGG de Bizkaia respaldan las Denominaciones de Origen Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina y Getariako Txakolina.
2. Que las JJGG de Bizkaia apoyan a los Consejos Reguladores de las Denominaciones de Origen Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina y Getariako Txakolina en su esfuerzo por proteger, difundir y rentabilizar estas producciones tradicionales del País Vasco.
3. Que las JJGG de Bizkaia instan al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a que apoyándose en las reivindicaciones históricas de las tres Denominaciones de Origen, Arabako Txakolina, Bizkaiko Txakolina y Getariako Txakolina, realicen las gestiones oportunas ante las instituciones europeas para proteger los términos “txakoli-chacolí-txakolin-chacolín-txakolina”, como uso exclusivo en el ámbito territorial correspondiente a estas tres Denominaciones de Origen.
4. Que las JJGG de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia y al Gobierno Vasco a que continúen apostando por el sector del txakoli, fomentando la presencia de sus vinos y bodegas en ferias, mercados y exposiciones